

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Oñila'ren 28'an.

Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Kanpion, Lakonbe, Landeñetxe, A. Intza, Altube, Eguskitza, Olabide ta Intzagarai; urgazlerik batez. Araudi-otoiza egin da.

1. Kanpion eta Intza jaunak Etxaño-Aranaz'en izan diran euskal-jaien beñi beste euskaltzainai eman die ta abek atsegiñez entzun dute. Euskaltzaindiak esker bereziak aitortzen dizkio A. Intzari euskal-egun oien buru ta zuzendari azkaña izan dalako. Eskeñak ere azaldu bear dizkio Etxaño-Aranaz'ko Udalarai, abegi ta laguntza egin dizkielako Euskaindiaren izenez an agertu diranai. Jai abetan Iruña'ko euskal-ikastolako emakume gazte batek itzaldi gogoangari bat egin du. Euskaltzaindiak emakume gazte onen laguntza beñiz ere nai luke egitamuz darabilzkien Donestebe'ko euskal egunetarako ta berari beste itzaldi bat eskatzea erabaki du. Berdin Donosti'ko Eleizegi Katalin emakume argiari beste itzaldi bat eskatu bear zaio Donestebe'rako.

2. Eguskitza jaunak bizkai-aditzaren erabilkerak aztertu ta Euskaltzaindiari azaldu dizkio. Lan edeña da ta berak dakien bezela ondo eratua. Lan au egiteko Mikoleta'ren liburua bide izan zaio.

3. Iruña'ko apaiz-ikastetxeko Zuzendari jaunaren idazki bat irakuri da. Idazki onen bitartez, zuzendari jaun onek Euskaltzaindia deitzen du ikastetxe artako euskal-azterketak ikertzera. Euskaltzaindiak oñetarako bere ordezeko Kanpion jauna ta A. Intza aukeratu ditu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Oñila'ren 29' an.

Len aipatu diran euskaltzain herak daude beren alkietan, Azkue maipuru dutelarik.

1. A. Intzak aitatu-ta, Euskaltzaindiak erabaki du: *a)* Euskaleriko apaizburuai dei bat egin: elizkizunetako euskal-liburutxoan utsunak betetzeko; *b)* *Boletín Eclesiástico* deitzen dan aldirokoan galdetu apaizburu abei: zer liburu edo bederatziuren bear dituzten beren elizetan; *d)* Irarkolai galdetu euskal-liburutxo abetatik zenbait gai dituzten; *e)* Saint Pierre urgazle jaunari idatzi, aŕen egiñik, Bidasoatik aruzko Euskalerian diran euskal-bederatziurenak Euskaltzaindiari bidali dizazkiola.

2. Azkue jaunak bere lan baten irakurpena egin du. Lan oŕen izena auxe da: *Categorías gramaticales, Morfología*'ren zati bat.

3. Irakuŕi Euskaleriko Udal batzuen idazkiak, euskal-liburutxoak beren ikastoletarako erosiko dituztela agindurik. Aretxabaleta, Azkoiti, Ondaŕabi, Itxasondo, Ernani, Eŕrenderi, Urnieta, Abadiano, Eloŕio, Erandio ta Markina oraingoz aipatu bear dira.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.
